

Udalaren iritzia

Laugarren aldiz Anoetan egin dugun hizkuntza erabileraren kale-neurketaren emaitzek erakutsi digute herrian, pixkanaka, euskara gero eta gutxiago entzuten dela. Arrazoiak askotarikoak izan daitezkeen arren, kontua da, 15 urtetan igoerarik ezagututa ere, une honetan elkarrizketen %57 bakarrik direla euskaraz Anoetako kaleetan.

Bereziki kezkatu gaituzte haur eta gazteen erabileraren beherakadak eta pertsona nagusien erabilerak zenbatean egiten duen behera haurrak presente ez daudenean.

Anoetako Udalaren egitasmoan funtsezkoak dira euskara indartzea eta Anoeta euskararen arnagune izaten jarraitzea, beraz, egungo egoera hobetzeko asmoz, konpromisoa hartu dugu datuak sakon aztertzeko eta plangintza bat egiteko, herriko hainbat eragilerekin batera.

Baina Udalaren konpromisoa ez da nahikoa emaitza hauek iraultzeko. Herriko kaleetan egindako neurketaren emaitzak dira azaldu dizkizuegunak, beraz, denon emaitzak dira, eta denok egin beharko dugu ahalegina.

Bada, bene-benetan animatzen zaituztegu dakizuenok hitz egitera, ulertzen duzuenok hitz egiten ausartzera eta ez dakizuenok ikastera.

“Anoetan euskaraz bizi nahi dugu”

**Oharra: kale-neurketaren emaitzen txosten osoa udaleko webgunean jarriko dugu (www.anoeta.eus).*

Cada vez se escucha menos euskera en las calles de Anoeta. Nos preocupan, sobre todo, el descenso del uso del euskera en la población infantil y juvenil, y el bajón que se aprecia en el uso del euskera de las personas mayores si no hay niños y niñas presentes.

El Ayuntamiento se compromete a analizar en profundidad estos datos y diseñar un plan con la ayuda de agentes sociales de Anoeta, para intentar darle la vuelta a esta situación. Os animamos a quienes sabéis euskera, a hablarlo, a quienes lo entendéis, a atreveros a hablarlo, y a quienes no sabéis, a aprenderlo.

HIZKUNTZAREN ERABILERA NEURTU DUGU ANOETAKO KALEETAN

Medición del uso de las lenguas en las calles de Anoeta


Laugarren aldia da Anoetako Udalak hizkuntza erabileraren kale-neurketa egin duena, Soziolinguistika Klusterraren laguntzarekin. 2001ean egin genuen lehen aldiz, eta, harrez gero, bost urtez behin egin ohi dugu neurketa. Horrek eman digu bilakaera ezagutu ahal izateko eta hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzeko aukera.

Neurketa honen metodologiari esker, abantaila handiak lortzen ditugu herriko errealitatera hurbiltzeko. Metodologia objetiboa da, herriko kaleetan entzuten dena jasotzen baita. Neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, beraiei ezertxo ere galdetu gabe.

En 2016 hemos realizado una nueva medición del uso de las lenguas en las calles de Anoeta. El método objetivo de medición consiste en ir anotando qué lenguas utiliza la gente que se encuentra por la calle.

Erabilera Anoetan, 2016ko emaitza orokorrak


Resultados generales de la medición de 2016



2016ko neurketak datu hauek erakutsi dizkigu: kalean jaso diren elkarrizketen %57,7 euskaraz izan dira, %39,2 gaztelaniaz eta %3 beste hizkuntzetan.

Euskararen erabileraren bilakaera Anoetan, 2001etik 2016ra (%)


Evolución del uso del euskera desde 2001 hasta 2016 (%)



Hamabos urtetan zehar euskararen kale erabilerak izan duen bilakaera jaso dugu grafiko honetan.

Adinaren arabera erabileraren bilakaera, 2001etik 2016ra (%)

Evolución del uso del euskera desde 2001 hasta 2016 según la edad (%)



Adinaren arabera sailkatutako datuak (%) erakusten dizkigu grafiko honek, hau da, adin talde bakoitzean euskararen kale erabilerak izan duen bilakaera hamabost urtetan zehar.

Haurraren presentziaren arabera erabileraren emaitzak, 2016ko neurketa (%)

Resultados de 2016 en función de la presencia de los y las niñas (%)

Haurrak elkarrizketetan presente egoteak eragin handia duela erakusten du grafiko honek, haurrak presente izanik euskararen erabilera hazi egiten baita:

- Haurrak mintzakide direnean (batez ere beraien artean, edo zuzenean nagusiekin hitz egitean), euskararen erabilerak nabarmen egiten du gora.

- Nagusiak (gazte, heldu eta adinekoak) haurraren presentziarik gabe ari direnean, euskararen erabilera dezente baxuagoa da.

Se aprecian mejores resultados en euskera cuando la población infantil es interlocutora en las conversaciones, especialmente cuando hablan entre ell@s (77,4%) o cuando hablan directamente con las personas mayores (%77,9).

El uso del euskera baja de manera importante cuando las personas mayores (jóvenes, personas adultas y mayores) conversan entre sí sin estar presentes las y los niños (44,7%).

